

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Pedro Urteaga Arregi

*Aretxabaleta,
Gipuzkoa
(1931-2010)*

Aurkibidea



Biografia



Koruetako (Goroeta auzoa) Mendikurutze baserrian jaio zen 1931n. Birraitona Gabiriatik ezkondu zen Mendikurtzera. Pedroren aita bertakoa zen eta ama Araotzeko Enparantzakoa baserrikoa. 10 anai-arreba ziren. Koruetako auzo-eskolan hasi zen eskolan, don Jenaro Unda eta don Bonifacio Arenaza apaizak irakasle zituela. Gero Aozaratzakora pasatu zen, eta han don Fermin Olas izan zuen maisu. Eskoriatzako maristetan eta Aretxabaletako nazionaletan bukatu zituen eskolak 14 urterekin. Urkuluko urtegiak urperatu zuen baserrietako bat izan zen Pedorena. Orduan gorago eraiki zuten Mendikurutze berria. 27 urte zituela etorri zen kalera bizitzera eta jubilatuz arte Zerrajeran egin zuen lan. Koruetako Errotazar baserriko Albiñarekin ezkondu zen.

Zintak

ARE-036

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Aretxabaleta.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-05-07
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa
- **Transkribatzailea(k):** Elortza, Kepa

ARE-037

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Aretxabaleta.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-05-07
- **Iraupena:** 20 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Goroetako Mendikurutza baserrian jaioa

- **Erref:** ARE-036/001

- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

<p>Pedro Urteaga Arregi Goroeta auzoko Mendikurutza baserrian jaio zen 1931ko urriaren 19an. Lehen jaunartzea egin zuenean, gogoan ditu nazionalen kanoiak etxeko lur-sailetan kokatuta, une berean "gorriak" Murun zeudela. Olaetako don Genaro Unda zen orduan Goroetako abadea.</p>

Transkripzioa

- Esango dostazu zure izena eta apeliidua?
- Pedro Urteaga Arregi.
- Eta non eta noiz jaixo zifan?
- Korutan, Aretxabaleta, Koruetako auzun.
- Ze baserritan?
- Mendikurtze.
- Ta ze egunetan?
- "Diecinueve de octubre" oktubrien hemeretxizen, "mil novecientos treinta y uno".
- (...).
- Nik sei urte oktubrian in biher eta udabarrixen in nittun primera komuniua, eta akordatan naz zera, "los cañones del glorioso movimiento" esaten otsienak eurok, zerok, Koruetara etorri ziren kaiñoi zahar haundi batzuk, bueno, oin "quince y medio"ko kaiñoiak eta han euki zittuen oin Mendikurtzako etxia dauen lekuen, alde baten, ha Ujartekua zan terrenua ta han lau egon ziren hona Kanpazar aldera begira, eta gure terrenuetan, han ardi-txabolia egindda daukie oin baiña han beste lau hona Murura begira.
- Gorrixak Murun egozen, ezta?
- Gorri izenekuok Murun. Eta santuok hemen zerien, eta handik ondiok Untzillako elizieri handik tiratutako zeren bat, granadan bat sartuta han euki bidaue, esaten daue nik hola entzun izan dot, eliziek han daukala onddiok. Hari ez dotzala ifnok ekuturik be in, horman sartuta ta zeori.
- Untzillako elizan?
- Untzillako elizan dauela esaten daue. Eta elizako paretan sartuta dauela. Goixen edo zerien, parajien be halakuen egongo da ta.
- Errebentau barik?
- Errebentau barik egongo da.
- Jaungoikuen gauzia izango da.
- Jaungoikuena bai, Jaungoikuenak halakuak pasetan dira. Eta orduen etorri ziren zerok, gu primera komuniua itten han Koruetan euen abade bat, bueno, artista bat, Olaetako semia, Unda, "Don Genaro Unda".
- Nungo semia?
- Olaetakue, Olaeta hor, bai, "Don Genaro Unda", oin be badau emakume famosa bat, hor Unda, Aramaixon, burrukan edo zerien ibilitten dana, zerien be egonda, "en Juegos Olímpicos" edo hor be.
- A, bai, egixa da, medallan bat atara eben horrek, ezta?
- Bai, Undatarrak, hareik oso...
- Eta abade horren parientia da hori?
- Ba Olaetakuak dira danok, eta zeozer izango dira. Bai, zeozer izango dira.

2. Aitaren jatorria

- **Erref:** ARE-036/003
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:04:13. **Bukatu:** 00:06:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Pedroren aitaren aitajauna Gabiriatik Goroetara ezkondu zen. Gazte hil zen eta bere alarguna Itxasmendiko Joakin Errastirekin ezkondu zen berriro. Hauen semea Emeterio Arabako Hermura joan zen.

Transkripzioa

- Eta zeure aitta-amak nunguak ziran?
- Nire aitta Koruetakue, nire aitten aittona zan Gabiritik ezkondu zan Koruetara, ez dakit zela kristo ezkonduko ziren orduen, urte hareittan. Eta orduen egon zan...
- Zeure aittajuna edo aittaren aittajuna?
- Aitten aittajuna, bai. Eta Gabiritik ezkondu zan Koruetara, orduen ba ez dakit zela, orduen bizikletan be ez ziren etoriko eta trenien be ez, eta ez dakit zela itten zittuein horreik ezkontzaok eta horreik tratuok. Gabirikue, e? Eta hil zan hogeta ez dakit zenbat urteaz, hogeta hamar urteaz azpitik, bi seme...
- Gazte hil gaiñera?
- Bai, bai, bi seme, seme-alabak itxi zittun, seme-alaba nik ez neben ezagutu aittajuna be ez, nire aittajuna be haren semiori nik ez neben ezagutu. Hil zan, bera hil zan ume biaz zera amaori itxi eta hil zan zeori.
- Hareittako, bi ume hareittako bat, zure aittajuna?
- Bai, nire aittajuna, baiña nire aittajuna hil zan ni oktubrien jaixo eta ha Santixau egunian hil egin zan zerien, nik ez neben ezagutu ha be. Eta bestia, aittajunaren arrebía be ez, ha mojjia be ez neben ezagutu. Bestaia hil zan, holako birusen bat edo zeren bat egon zan eta orduen jente pillo bat hil bihar izan euen hemen, baiña kantidadia.
- Ez zan izango gripe espaiñola edo hori?
- Nik ez dakit zer izango zan, zeatik pentsaizu zenbat urte diren.
- Zu zeu jaixo eta hurringo egunien, hurringo egunetan hil zan.
- Ez, ez, nire aittajune hil zan beste geixon bateaz, beste zeren bateaz, baiña ha bestia, aittajunen aitta hil zan, Gabiritik etorritta euen hori, hil zan ume txikiñakin-ta, ume txiki biaz itxitta, eta gero biudiori gero ezkondu zan Koruetako Itxasmendi edo hango zer bateaz, Joakin Errasti, eta seme bat euki euen hareik eukieuen biudiorreaz ta ha zan gure tio Emeterio, esaten gotsan guk hari. Hortik ezkondu zan Arabara, Hermura, eta hareik Errasti apellidua eukien, ezta? Amandrien bigarren gizon horrek eta ha zan Emeterio Errasti, Araban Hermun Errastixak hor daz Hermun eta Larrean ta zerak, hango, hemengo jatorrikuok, zeozer zerikusixa eukena gurekin.

3. Ama araoztarra zuen

- **Erref:** ARE-036/004
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:06:47. **Bukatu:** 00:09:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Ama Araotzeko Enparantza baseritik etorri zen Goroetara. Tio Bittor, Oñatiko "Juanitosiena" dendakoaren kontu batzuk azaltzen ditu, gerra denborakoak barne.

Transkripzioa

- Eta zure ama nundik etorri zan?
- Ama Araozko Enparantzatik, bai, Juanitosien Bittor ezagutu zeuben?
- Bittor bai.
- Ba Bittor tio zan nire amana.
- Bittor Juanitosena, Pedron aitta, ezta?
- Pedrona ez, ha Inazio zan Pedron aitta.
- A, Iñaxio, nik Iñaxio ezagutu neben. Klaro, Bittor ez.
- Bittor zan Iñazion aitta. Santixautan etorten zan gurera zaldi gaiñien. Zera tio Bittorrori, eta hor izten eben San Mielak artien zaldixori. Gero nik jarri zaldi gaiñien eta Urrusula Garaittik, Lamiategittik tak, sartzen nitzen oin han hareik ortuek eta zerak aukien lekuen, euken zaldixorrenzako itxabolia eta bera piñudixak eta basuak eta zerak be beukien, eta basora fan ta asko ibiltten zan zeori, tio Bittorrori.
- Hari, Bittor hari...
- Ha zan nere aman aitta eta ha anaiek ziren. Enparatzakua Segundo eta hori Bittor anaiek ziren horreik.
- Bittor horri ya esaten xako Juanitosa edo onddiok ez?
- Juanitosiena? Juanitosiena esaten jakon orduen.
- Orduen be bai?
- Bai, bai, Juanitosiena esaten jakuen, gure bizi guztien Juanitosiena esaten jakuen.
- Eta ordurako beukein dendia-edo?
- Bai, dendia aurretik. Gerra denporan kartzelan sartu euen frankistok-eta, gero alabia Rosa edo euken zerbat, eta hareik dendan han egon ziren baiña Leonardo hango zera hartu eta apenas gauzak halako ondo eruen zittuen behintzet zerien, etorri zanién apenas topau zittun, famelixie ez eukena zan alabiori Rosa, eta horreik ba istorixa batzuk ba, bueno. Eta ni han egoten nitzen ba San Mielelan zaldixori eruen eta Miel Usako ta tio Bittorren lagun haundixak ziren, bata Ameriketean egon zan hanka egindda hemendik, eta bestia kartzelan, eta han bazkaitten geontzela orduko kontuei buelta emun eta zerien, eta ni mutikuak ba entzun itten nittun zertzuk esaten zittun orduen. Eta gero zera etorritta hemen komerziuen batak eta bestiak be fabrikantia edo zera eta bestie, Madrillera fan zirela egun baten, entzunda daukat beari edo zeari. Ta Madrillen preguntau otse zeren bat, aguazillen bateri, "¿aquí para ir a calle Toledo?" "Ahí tienen ustedes el metro." El metro, el metro hemen xakuau poltsikuan baiña zeozer itten xuau honeaz.

4. Goroetako eskola eta maisuak

- **Erref:** ARE-036/005
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:09:35. **Bukatu:** 00:12:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Goroetako eskolan ikasi zuen, Don Genaro Unda maisuarekin lehenengo, eta Don Bonifacio Arenazekin geroago. Don "Boni"ren jatorri bitxia azaltzen digu. Nazionalek Etxebarri etxean izan omen zuten biltegia gerra garaian. Dotrina eta hiru erregelak ikasi zituzten eskolan. Gerra denboran ez zuten eskola askorik izan.</p>

Transkripzioa

- Esan dozu sei urtekin in zebela lehenengo komunixuori, ezta?
- Sei urte in barik neuken artien.
- Eskolan noiz hasitta?
- Eskolan han faten gitzan, makillakada batzuk hartu eta dotriña eta zera erakusten ta ezebez, faten gitzan abariorreana. Han ibiltten zan orduen abariori danak jo-ta aurrien zittuela, egur baten. Harek astokerixak haundixak itten zittuen, e?
- Zuek zer zekatsuein, Koruetan zekatsuein eskolia ala Azatzan?
- Bai, bai, Koruetako han dau onddiok abadiak eskolia emuten euen lekuori.
- Zela esan dozu abarien izena?
- Don Genaro ha, eta ha fan zanian etorri zan Don Boni beste bat, beste satelite bat.
- (...) eta beste satelitiori zela zan?
- "Don Bonifacio Arenaza"
- Hori nungua zan? Horrek apelidua...
- Hori, guri esaten oskuen moduan zan beori abadien semia, bai, Azatzako abade baten semia zala esaten daue danak, zerekuak, lehenauko zaharrak esaten euen. Lehenago orduen itten etsien ba, beste batzueri enkajetan etsien zeori paketiori.
- Baiña Arenaza ez da hemen inguruko apelido bat?
- Klaro hemengua dana, zerekua...
- Bera bertakua zan orduen?
- Ez euken zera, aitten apelidue ez euken. Gero ba zertu otsen beste zer horren, Arenaza bateaz ezkondu zan zeori ta haren apelidua euken, bai.
- Eta dotriña eta irakurten eta kontuak itten be ikasiko zeuein?
- Baiña zera, sumar edo restar-edo, gure karrerria hola akabo zan, holako zeren batzuk, dotriña...
- Gerra denporan fan ziñan eskolara?
- Gerra denporan orduen han tiroka ebitzela ez, orduen ez zan han eskolarik egon zerien, orduen egon ziren gure zerien, orduen zeori "quince y medio"ko kañoiek zien holakotxe alturako zerak, granada tzaharrak, han Oñatiko sekretarixuak oin etxia egindda dauken lekuen, han euen Etxebarri esaten jakonari, etxezahar bat, han euki euen almagazari. Onddio be, oin etxiori itten eta pantanua egindda in daue harek etxiori han. Deretxua eukien, behian eukien etxia eta. Han onddiok kajak eta han egozen, granada kaja zaharrok eta zerok e?

5. Auzo eta herri ezberdinetan ikasia

- **Erref:** ARE-036/007
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:12:33. **Bukatu:** 00:15:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Gerra bukatu ondoren Aozaratzako eskolara joan zen. Maisua aragoiarra zen, Don Fermin Colas. Handik Eskoriatzako maristetara joan zen. Aretxabaletako eskolan bukatu zituen ikasketak, Kukuzulo baserriko Don Pedrorekin.</p>

Transkripzioa

- Hor Koruetako eskola horretan zenbat urte arte egon ziñan?
- Hor egon nitzen, gerria akabo eta segidan, gero fan nitzen Azatzara. Azatzan euen maistro bat, maiñua zan bera, eta han Zarbiarten edo baserri baten apopillo egoten zan, gose denporan zan, "Don Fermin Colas".
- (...)
- Parra dutso. Colas zeori egon zan maistruori zerien, eta oiñez etorten zan handik, Mondrauen edo lagunen bat euken ta, eskolia emun eta gero, baiña ba, hango eskoliori eta... han jente mordua. Eta gero maristetara faten nitzan handik zertuta beste apur baten. Gerraostien maristetan ba han zertxuau, [...], eta gero handik atzera Atxabaletara ta hemen akabau gauen karreriori hamalau urteaz etxera ya, pastore ta...
- Maristetara nora fan ziñan, Eskoriatzara?
- Eskoriatzara, oin horreik, hotel hori eta egindda dauen lekuen.
- Eta maristetatik?
- Gero hona, Atxabaletako zera. Maristetatik hona etorri nitzanien hemen euen maistro bat, Etxeberria-edo, Kukuzulo esaten gotsen. Maristetan gerra denporan urtendakua zan zeori.
- Kukuzulo?
- Bai, Kukuzulo baserrixari edo esate etsen, baiña bera "Don Isidro" zan, deuke apelidua horreik... ez dakit zela dakuein be apelidua, baiña Kukuzulo baserrixa zan e? Baserrixen izena-edo, bai. Gero haren anaie ta, hortik hemen Galartza aldekoa ziren hareik izatez, hemen, Galartzakuk hemen, baserrin batekuk, eta gero fan ziren horreik hara, Zuatzura, oin pantanuen gaiñekaldien dauen etxera fan ziren bizitten.
- Arabara?
- Koruetara, Koruetara. Koruetako pantanuen beste aldien dauen, Urkuluko ziterrera goiazela ezkerreko aldetik. Hemen Azatzatik Urkuluko sierrera goiazela ezkerreko aldetik leheningo dauen etxia, kamiño gaiñien. Han bizi izan zan horren anaie eta famelixia. Beori hemen, hemen eta gero hemendik ezkutau zan ez dakit nora fango zan zertu nitzenien, gero ez dakot gehixau gomutaurik eta haren zerik.

6. Gerra denboran kaletik baserrira babes bila

- **Erref:** ARE-036/008
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:15:12. **Bukatu:** 00:18:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

<p>Egun gutxitan geratu zen eskolara joan gabe. 10 anai-arreba izan ziren.</p>

Osaba batek gau-eskolak ematen zizkion. Beste osaba marista bat gazte hil zen. Gerra denboran, Zubiatarrak, jaio berri zen ume batekin, Pedroren baserrian babestuta egon ziren.

Transkripzioa

- Eskola denporan egunero eukitten zeбен eskolara fatia edo etxien lana euenian etxien geratu bihar izaten ziñan?
- Jeneralmente kasik egunero faten nitzan, bai, baiña hor be ba...
- Baiña ittaurren ittia tokau ezkeru eta holakotan?
- Ittaurren nehikua in geuen orduen, bueno. Ittaurren eta danera in bihar izaten zan, baiña eskolara etorri barik gutxittan geratuko nitzan.
- Zenbat anae-arreba ziñain?
- Hamar-edo izan gintzen baiña orduen umiak asko hiltten ziren, sasue hartan.
- Aingeru kanpaia, ezta?
- Umiek ez zirenak be. Anai bat hil zan. Egun baten hil xaten tio bat marianistia, okotsian edo holako grano batek edo urten eta Eskoriatzan euen medikua, Don Txomin edo esaten eutsiena, hemen baiñuetxekua semia zan, Atxabaletako baiñuetxekua, lehenaoko baiñuetxe zaharreko zera ta, harek sajuu edo zeren bat in otsen eta geruau eta txarrago eta Bittorixara. Bittorixan hil zan, febreruen hamahirun, "mil novecientos cuarenta y cinco"an hil zan ta aurreko egun baten ni fan nitzan, hemen tio bat geuken guk kalien, eta illunkaran emuten oskun eskolia pasau ta gero zera, gabeko eskolia edo hola zer apur bat, ez dakitzu? Zeozer. Piñuak neurketan ikasi eta holako txorakerixa batzuk itteko eta zeozertan hor. Eta nik hemen tio bat geuken eta nik tionien itten neben lo orduen. Eta goizian jaiki nitzanien esan usten "tio Kandido hil dok, eta Joxe be Bittorixara eruen dauela", Joxeri urten otsen eztarrixan bertan orduentxe.
- Gauza bera?
- Ez, ba zerbait eztarrixen, ez dakit zer izango zan. Hemen Don Tomas euen medikua ta begitu otso eta hori [...] dakotsu eta ez dakit zer. Hurrengo egunien geixki zeori eta aitta Bittorixara fanda euen baiña Bittorixatik tio hil zanian etorri eta maristetan, maristetara ekarri euen kadaber hori. Hogeta hamar urtekua e? Maristia zan. Maristetatik gerra denporan gure etxia dana beteta egon zan zeraz, hemen Zubian famelixokin eta, honeik Azbe horko zerok. Jente pillo bat, gure etxien han egon zan emakume bat, Felisa, Joxe Zubian andria. Orduentxe euen umia, egun gutxiko umia jaixota, aste beteko umia edo, eta gero elixara sartu bihar izaten euen ordun. Beratziurrenera edo andrak umiorreaz ez dakit ze santu edo zetako, eta zela han sartu zan eta burua euki dau oso ondo ointxe arte. (...) Eta kontetan hango kontuak eta bere semiak be esaten dau, hango kontuak, bueno! Kontetan zittuela baiña ointxe pasauta letxe, Felisa horrek.

7. Erlijio ohiturak

- **Erref:** ARE-036/009
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:18:17. **Bukatu:** 00:20:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Umea jaio eta berehala bataiatu behar izaten zen. Ohiturak aginduta, jaio eta

bederatzigarren egunean, amak umea elizan sartu behar izaten zuen. Oinarrizko eskolak ikasita, 14 urterekin bukatu zuen eskola Aretxabaletako nazionaletan. "Porrukue" etxeko Sabino, Oñatiko parrokoa izango zena, izan zuen ikaskide Aretxabaletan.

Transkripzioa

- Esan dozu, umia euki barri andria beratzigarren egunian, elizara fan bihar izaten zala?
- Elizara fan bihar izaten zan ordun, danak, elizara sartu bihar izaten ziren.
- Beratzigarren egunien?
- Beratzigarren egunien.
- Eta hori zeatik?
- Hori preguntau elizako gizoneri.
- A, relijiñoako ohitura bat?
- Lehenaoko legiek, elizien legiek ziren horreik. Gero umiok aurrera kristau izan daittezen-edo, ez dakit ba zertako...
- Baiña bautizau baiño lehenago?
- Bautizau ba jaixo ta zerien. Ez dakit oin bautizauta, bautizau jaixo ta segidan itten ziren orduen ta. Orduen bautizauta egongo zan segurutik.
- Baiña beratzigarren egunien?
- Elizara sartu bihar izaten zan. Ama umiakin, bai. Orduan zera itten zanien gaiñera, bautizua itten zanien gero bolua egoten zan, zerien botata.
- Bai, hori neuk be ezagutu dot.
- Elizpeien hango zalapartia, bata bestien gaiñiaen. Karameluak eta txakur haundixak, eta bueno, istorixa batzuk ordue, bueno. Bai gizona.
- Orduen Eskoriatzako maristetatik, Atxabaletan Don Isidrokin...?
- Bai, hor akabo geben guk gere karreriori.
- Baiña ze egon ziñan ordue, nazionaletan?
- Eskuela nazionala zan, bai. Oñatiko parrokoa, Don Sabino eta ni banku baten egoten gitzen. Oin jubilau da hori, ya.
- (...)
- Don Sabino hemengua da, ala?
- Hemengua hori, hemengo Porrukue, hor dau ortua ta zerien, hantxe behera goiazela, lehengo parte, honeik etxe zaharrak, lehenguak akabaitten diren lekuen, azkeningo etxia.
- Orduen hamalau urte arte eskolan?
- Bai, hamalau urteaz kalera, "sumar, restar ta multiplicar" ikasi ta beste holako gauza batzuk, leidu eta zer batzuk, ordue diktadua eta zera itten zan, leidu ta guk eskribu zerien ta.

8. Don Bonifacio abadea

- **Erref:** ARE-036/010
- **Iraupena:** 0:04:12. **Hasi:** 00:20:24. **Bukatu:** 00:24:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Don Bonifacio maisua oso erdaltzalea zen. Ikasleak zigortu egiten zituzten euskaraz egiteagatik. Maisuak Francoren argazkia eta Espainiako bandera jarri zituen ikasgelan. Francoren zalea eta Juan XXIII.aren aurkakoa izan zen.</p>

Transkripzioa

- Zuek eskolan euskeraz itteagatik-eta kastigau itten zindduein?
- Koruetan hor azkeningo egon zan Don Bonifaziok, horrek bai, horrek egurra.
- Euskeraz itteagatik, e?
- Bai, horrek Francon erretratua eta bandera espaiñola ifiñitta eukitten eben, gaiñien bera ta bera hola mahaixen jarritta, ta guarda zobillak eta eruen eta zutik ifiñi zerien, eskolan eta itten gindduen, guarda zobillak sartuta ta Francon erretratua ta bandera espaiñola-ta...
- Koruetan, e?
- Bai, bai.
- Gauza horreik normalian kalia gehixau pasau izan dira.
- Bai, Koruetan harek egurra, harek zera itten eben, harek, bueno! Gero esango dotsut, hor Apotzagatik etorri zan, hango istorixak be, zerekuak. Baiñe Koruetan itten zittun zerak, eta Koruetan in eben horrek gaiñera egun baten, mutiko batek beste bati emun otsen belarrondoko bat, eta bera Joxe Antonio hori hildda dau, eta bestia zan Erreka [...] Eujenio Altube, diabro samarra zan hori, Eugenio hori. Mutiko horrek emun otsan plastadan bat zeari, Joxe Antonio horri, ta fan da abadiorreana, "jauna, Eujeniok jo in nau" ta "no entiendo, hablar en castellano", ta mutikua buelta in ta badoia eta zeozer akordau jakon erderaz, buelta in ta fan da, "jauna, Eugenio palo, Eugenio palo", "neuk emungo dostat beste bi belarrondoko".
- Eugenio palo?
- Bai, "jauna, Eugenio palo", eta "Eujenio palo nik emungo dostat hiri", eta beste bi belarrezkiñako onddio.
- Bonifazio hori orduen erdera zalia zan.
- Erdera zalia eta militar zalia ta, semia militarra daukela esaten daue, zerien, Madrillen. Hori gu han eskolan amadekasiar itxi ta urtien lau bat bider Madrillera faten zan orduen. Hori frankistia zan eta Franco hil zani en hil zan beori be. "Juan veintitrések" eliziori bueltia emun otsanien, buuf! Hori kontrarixua zan horrek itten euen, bueno!
- Bigarren konziliuaren kontrakua zan, e?
- "Juan veintitrések" guzurak esatiari itxin in bihar jakola ta, elizari emun otsan kriston astinddua orduen.
- Bakarra izan da.
- Egixek esan zittuana, gero haren atzetik nunbrauen hillabetegarrengo garbittu in zan gabien, uhera fan ta hurringo goizien hildda agertu, baiña orduen ez zala komeni, ez zala sartzen "Estado Vaticano", ha independientia zala ta, hor zer pasau zan eurek jakingo daue.
- Eurok bakarrik.
- Bai.
- Figuria zan orduen Bonifazio hori.
- Hori...
- Peligrosua.
- Militarra konpletua. Apotzagan be kristonak egindda etorri zan, e? Handik hona, bueno! Apotzagan be, han be, onddiok bizi da, osasun asko ez dauko baiña Degurixan euen Apotzagako [...], Joxe Mari, alzeimerrakin-edo jodiuta dago, baiña harek be han Degurixan haren kontuak esaten zittuen, eta zela gerra denporan euskeriaz ezin lekiela iñora fan ta erderaz in biher zala sermoien esan eben zerak, agurok kanpora urten daue eta batera, [...]

Bittorixan karnazeron batzugin-ta egonda lanien eta ibilixen erderaz ikasi jentiak, ikasi edo nahastu behintzet, geure moduen, eta urten ebenien “el sermón que ha echau el cura poca gracia me ha hecho”, esan ei eben, eta gero atzetik beste bat, Baxilio Etxetxokua, Ribera, hemen asko ibiltten zan, Laminaziñuan itten eben lana, eta gero gu mutikuak gintzala bolalekuen be bai hor ibiltten gitzen alkarregaz be, eta ha atzetik etorri ei zan eta, agurok ez zittuen ba barra-barra erderaz itten ifiñi? Bestia atzetik gerotxuago elizatik urten ta txapela jantzen, haize hotza iebillen, Frantzia haize hotza lehengo egunetan ibilli dan modukua halakua, haize hotza eta, “hacer frío seco seco” zeorrek, txapela jantzi euen horrek, “hacer frío seco seco” harek be, eta agurok barra-barra erderaz.

9. Ikatz garraioa

- **Erref:** ARE-036/011
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:24:36. **Bukatu:** 00:27:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Mendikurutza baserri handia zen. 18 ganadu buru egoten ziren etxean eta idiak ere bai. Ugaztegitik ikatz garraiorako nahitaezkoak ziren idiak. Kaleko lantegietan ikatz eskaera handia zegoen. Bost pezeta ordaintzen zuten Ugaztegitik ekartzen zen ikatz zaku bakoitzeko.

Transkripzioa

- Baserrixan zenbat ganau, ganauak-eta euko zittuein, ezta?
- Ganau asko. Orduen hamazortzi, baserrixa haundixa zan ha, terreno asko euen. Oin be badako ondiok ardixak eta ganauak be bai.
- Hamazortzi ganau eukitten zeuein?
- Hamazortzi, hori gutxienien.
- Idixak be bai?
- Idixak? Honbre! Idixak fuertiek gaiñera, e? Gero idixak derrigor biher be orduen, gero pezetie be, gero gerra ostien hemen ikatzak in zirenien hasi Gatzagatik Otzaurteraiño horreik baso danok, hareik bajetako, ikatza bajetako, idixakin Koruetatik fan zaittez Ugastegira behetik gora, goiko Andartoraiño ta, han dazen aldatzakin behetik gora, eta handik ikatzetan, eta nik gure tio batek esaten oskun, han Ziondokuak, gure aitten arrebria euken andria, piñu sartzen-ta gu beragaz gaztia gitzela asko iblli nitzan ta orduko kontuak, ta gu orduan aberasketan gebintzenlakotan ibili gitzuan ba, zerien, ikatzetan. Orduen hemengo fabrika guztiak gasojenuakin ta zerakin ibili ziren, ez euen beste zerik, inddarrik be ez beste zerik eta kriston problemak, eta Orbegozo eta Altos Hornos eta honeik danok ikatzakin, ez dakit zela kristo itten zittuen, nehiko millagro itten euen. Gasojenuak be hemen zeakin ifiñi kotxiek eta danak gasojenuakin ibiltten ziren. Eta ikatza Ugastegittik, han Ugastegi ingurutik bost pezeta zakuko, eta hogeta bi zaku ekarten zittun.
- Bost pezeta, durua, orduan diru pillatxua izango zan, ezta?
- Diru asko orduen! Eta goratxuagotik sei pezeta edo. Kriston diruak itten ibili zirela orduen, orduko denporan.
- Eta zu zeu ibilli ziñan karretero?
- Ez, ez, ni artian mutikua nitzen; aitta ta tio eta horreik beste zer batzuk.

Gure aittak ziren horreik, aittak. Orduen hainbeste diru...

- Horrek gasojeno horrek zela funtzionaitten eben ba?

- Ba ikatza botaten otsien eta kotxiai be baitta ikatza bota ta zera. Eibar-Vitoria be gasojenuakin ezagutute daukat nik, gu maristetan eskolan gebitzela.

- Autobusa?

- Autobusa, bai. Zela ba... zela funzionauten euen, hori...

- Lokomotoran antzera izango zan, ezta?

- Bai, bai, lokomotoren, trenen antzera.

- Lurrunakin.

- Kriston lurruna, lurruna zan, hainbeste lurruna ez euen ataraten zerak; atzekaldien erueten euen zeori kargauta eta gero motor horrek zela pistoiari eragitten otsen, hango gasakin mobiuken zan motorra, handik urtetan eben gasakin. Hemen ezagutu gittuen bueno, ondiok bizi da, hemen Larrubixarren lagunketan otsana eta hemen zer bat, larogetaka urtiak euko (di)ttu baiña ha mutikotia ta ha lagun ebela faten zan Beroako ugezabaz sasue bateko bera.

10. Ikazkintzan lantegian baino diru gehiago; ardiak

- **Erref:** ARE-036/013
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:27:56. **Bukatu:** 00:30:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

<p>Legazpiko lantegiko lana utzi eta ikazkintzan hasi ziren ugaztegitar eta araoztar batzuk, diru gehiago irabazte aldera. Untzillako Zeraingo Paskuak ekarri zituen ardiak Mendikurutzara gerra denboran. Ardi batzuk erosi egin zizkioten, eta harrez gero izan dituzte ardiak etxean.</p>

Transkripzioa

- Ha izaten zan bueno orduen diru asko. Orduen ikazgiñan hor ibilli ziren hemendik Legazpira lanera fan, ta jente pillo bat Araozkuak, Etxebarri Txikiñeku edo Etxebarri Haundiku edo hanguk, Aratzurtikuak bi anai Madiñakuk, Madiñako Azpiko Txikiñekuk, beste hanguk be bai, ta jente pillo bat hor juntauta Ugastegiko Beheko Etxekuk be bai, zerekuk Santi hor Zumarragan edo Legazpin edo Zumarragan.

- Beheko Etxekua Juane eta honeik?

- Juanen anai bat.

- Juane bera ibilli zan umetan ikazkin.

- Bai, eurok be bai ibilli ziren, baiña horreik geroko ikazkiña, beste mailla batekuak gero. Hareik aurrekuak ziren Legazpira lanera fan eta beratzi pezeta ta erdi jornala irabazi, eta patroniari beratzi pezeta pagau ta gosiak akabo bihar, esaten euen. Eta hola etorri ziren horra ikazgiñen. Gero horreik atzera Legazpin hartu zittun. Gero bata, hori Araozkuori ibiltten zan, hango ekonomatua euken hemendik ardi zaharrak udazkenien eruen ta salketan; Tomas eta bestiak ez dakit zela ziren, beste anai, bi anai ziren hareik.

- Esan dozu hemezortzi ganau eta gero...

- Ba, hamazortzi-hemeretzi edo auskalo.

- Eta ardixak be bai?

- Ardixak, gerra denporan, ondiok bizi da hemen, larogeta hamabi edo larogeta hamahiru urte ointxe in bihar (di)ttu, hori mutikua ondiok gaztia, Untzillako Zeraingua, hemen aiuntamientuen horren, hori beori hospizianua da baiña, horren etxeko zera, Zillaurren hemen dauen aguazil bat. Antxiñako Zeraingua zan hori, Paskual. Hori hor Araba aldetik edo nunbaitetik etorri zan ardixokin, ta gurien egon zan, lehenengo ardixak orduentxe egon ziren gurien gerra denporan. Ta horren ardixak, oin be esaten dutset beorri, hola adarra joten ta iñoiz, hau Zubiak, Joxe Zubia eta horreik danok han egozen Zubia famelixok, hiru-lau famelixe, e? Batak apartetako ta honek Josek Zubiak bat hor ardi gorri bat ederra, kriston errapeiaz, eta bestiorrek ardi ipurtestu kaxkar bat eta bera tuertia gaiñera, ardixa ona zan izan, ez dakitzu? Bi ardi eta gero besten bat edo beste batenbateri erosi eta orduentxe hasi ziren gurien ardixak. Eta ondiok segiuten daue.

11. Mendien ardi eta txerriekin

- **Erref:** ARE-036/014
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:30:26. **Bukatu:** 00:33:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Kurtzebarrin edo Deguria mendian egoten ziren ardiak. Gazta bertan egiten zuten, eta gazurarekin txerri ederrak hazi ere bai. Arabako tratanteek erosten zizkieten gero txerriok. Pedro bera ibili zen gaztagintzan. Mezara joateko ibilaldi luzeak egin behar izaten zituzten mendiko artzainek.

Transkripzioa

- Nun eukitten zeuein ardixa uda partien-ta?
- Kurtzabarrin, Kurtzabarritik hortxe zerien. Oin Degurixan ibiltten dira. Itxabolia in euen ni soldau fan aurreko urtien-edo, aurreko urte bat edo bi lehenau, ni soldau fan baiño. Etxabolia Araozko zerak Leontzio, ointxe hil da haren semia, 'Amandria' esaten utsien Araotzen, Elkorobarrutia-edo, ointxe Gabonak ezker.
- Ardixak jaitzi eta gaztaia han goixan itten zeuein-edo?
- Gaztaia orduen goixen, niretako lanik onena izaten zan orduen, eskolatik akabauta eta aitta ferixara fateko, bestela be etorten zan eguaikotxetan behera, eta gaztaiak in ta gustora. Etxien hango aldien lan asko in bihar zan; eta txarrixak be eukitten gittun, orduen txarrixakin be dirua hartzen zan. Bost txarri.
- Han etxabolan?
- Etxabolatik aparte txarritegixa egindda.
- Bai, gatzuriakin gobernaitteko.
- Gatzuriakin ta asunek edo orrixak edo gure dana; hareik irakin bat emun eta gero gazuria bota eta kriston txarrixak hazten ziren. Han bakarrik ez, Degurixan eta Alabittan ta danien. Ta danak tratantiari erueten utsien Arabara txarri haundixak, orduen ez euen granjarik eta ezer.
- A, baiña zuek txarri horreik gero ez zittuein kalera ekarten, txorixuak eta egitteko?
- Ez, txarrixak etxien egoten ziren besten bat edo bi. Horreik Santixautan edo inguru artien batzen ziren ardixok zera arte, billotsak be geruago

jaixoten ziren oin baiño orduen. Arabara erueten zittun eta tratantiak han zertuta eta ondo pagaute, dirue hartzen zan orduen txarrixakin, orduko diru asko.

- Eta gaiñera gazuria aprobetxau.
- Eta gazuria aprobetxau eta kriston txarrixak itten ziren.
- Zeu be faten ziñan ardixak jaiztera.
- Ardixak jaitzi, gaztaiak in eta danak itten nittuen nik, eta mezetarako hamar ta erdittarako Koruetara etorri, goittik behera, “echando leches” ordun.
- Ba Degurixatik Araotzera faten ziren mezetara.
- Muxibar nire koiñatua ta, horreik Araotzera.
- Hau Juane eta be bai.
- Ugastegittik faten ziren Araotzera, Ugastegi Koruetakua zan baiña horreik mezetan Araotzera faten ziren. Eta Degurixatik be faten ziren pastoriek be mezetara Araotzera.

12. 27 urterekin, kalera bizitzera

- **Erref:** ARE-036/015
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:33:00. **Bukatu:** 00:35:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Barriara desterratutako abade nazionalista baten kontuak azaltzen ditu Pedrok. 27 urte zituela, Zerrajeran hasi zen lanean, eta kalera etorri zen bizitzera. Jubilatu arte jardun zuen Zerrajeran lanean.

Transkripzioa

-Nire koñatuak esaten dau San Bernarduetan fan zera, hara, Barriara, eta konfesau eta itteko amak, ez dakitzu? Zerien eta, fan da konfesetan eta han abade bat ba gorrixa zalako-edo...

- Abadia?

- Desterrauta euena zerien, Barriara, eta preguntau meza faltia, eta meza faltia zela ba hola eta hola, goittik behera ordu bete baiño gehixau bihar zala eta behetik gora aldatza haundixa eguela eta ordu ta erdi edo gehixau Araoztik Degurixara fateko biher zala, eta zerien ta, hori ez dala pekatu eta holako zera beeguen ez fateko esan otsen horrek. Honek Koruetan euenak entzun baleu hori! Eta gero preguntau otsen, hemen Mondrauen euen e... bera zela zan be bera, preguntau otsen hor euen abadiatik, eta ha frankistia zan eta “fulano hor jak Mondrauen?” “Bai”, ta “Ha frankistia dalako han jare eta gero ni hemen nak honeikin moja txatxalokin”, nazionalistia nintzalako atzera zeorrek, abadiorrek. [...] gaur be esango leke, larogeta zazpi urte egindda dauka baiña, larogeta zazpi, urtia ointxe, hillaren lauen, baiña onddiok burua ondo dauko, bai.

- Zu zeu noiz arte egon ziñan baserrixan, betik bizi izan zara baserrixan edo kalera etorri ziñan?

- Ez, ez, ni fabrikan hasi nintzan eta kalien bizi izan naz.

- Zenbat urtekin hasi ziñan fabrikan?

- Fabrikan hogeta zazpi bat urteaz edo. Gero Zerrajeran ibili nitzan eta Zerrajeratik jubilau nintzan eta berrogeta zortzi urte; baserrixen be egon

zan orduen zerbat gure euenak zera pagau, autonomuena-edo, oin Agraria urten dau baiña ordun ez euen, eta han beratzi urte edo pagauta neukan eta gero fabrika hogeta hemeretzi urte ba, "cuarenta y ocho años"era zera kotizauta Seguridade Soziala etorri jaten zeori papelori.

- Hogeta zazpi urtekin ya baserritik urten eta kalera etorri ziñan?
- Bai.
- Zerrajeran in zittun horreik jubilau arte?
- Bai, zerrajeran jubilau arte.
- Zu koperatibetan eta ez ziñan ibilli?
- Ez, ez nitzan kanbixau zera.

13. "Txomin Alanbrero" argi kobratzailea

- **Erref:** ARE-036/016
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:35:33. **Bukatu:** 00:37:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Eskola garaian pilotan jolasten zuten elizpean. Txirikilletan garizuman jolasten zuten. Futbolearen kaletarrek gehiago egiten zuten baserritarrek baino. Baserrian Zerrajeraren argindarra zuten. "Txomin Alanbrero" deitzen zioten argi kobratzaileari. Argia oso eskasa zen, baina etxe guztietan jarri zituzten kontadoreak.</p>

Transkripzioa

- Eskola denporan ze jolas klase-ta itten zittuein?
- Ba, jolasak holako ze haundirik ez, orduen mutiko txikiñak gitzanien...
- Baiña pote-poteka-edo...
- Bai, holako zerak bai, eta txirikilletan garizuman eta holako zelebrekerixa batzuk.
- Zuek be txirikilletan garizuman itten zeuein e?
- Bai, zuek be bai hala?
- Nik neuk ez dot sekula ezagutu jolas hori, baiña Oñatin be batzuk esan dostai txirikilla zala garizumako jolasa.
- Bai, garizumako jokua izaten zan.
- Eta txirikilletan, gero pote-poteka eta itten zeuin?
- Ez, tope-tope bai holako... ez naz akordatan holako zerik. Pelotan eta halako zeretan ibiltten gintzan, zeozertan, elizpeien. Eta hemen kalien frontoien zerien.
- Eta fubulian ta bape be?
- Orduen fubulerako ze haundirik ez euen artien hemen, hemengo ze... bai, batzuk itten euen orduen be fubolien, baiña gu baserritarrok ez geuken kostunbrerik, hemen kalekuak bai, gero akordatan naz ni.
- Zuek argindarra, zu mutikua ziñanian argindarra baeuen etxien?
- Bai, baiña argi gutxi itten ebena, zeatik...
- Epurtargixen antzeko zerbait.
- Bai, epurtargixen antzekua. Olatetik euen linea bat ifiñitta hona, zera, ta hor ipurtargixa lakotxia argixori. Gero hemen Bolibartik edo atzera beste zer bat ifiñi euen eta orduan zerbait gehitxuau.
- Leheningo nundik eki zeuein?
- Leheningokua Olatekua izango zan, zeatik...

- Oñatitik ekarten zeuen?
- Oñatitik...
- Zerrajeratik.
- Zerrajeratik, ze hemen ibiltten zan "Txomin Alanbrero" kobretan etxerik etxe.
- Txomin Alanbrero?
- Bai.
- Hori zan elektrezistia?
- Elektrezistia, kobretan, kontadoriei begiketan. Papeltxua in eta zerien, etorri eta kontadoriei begitu ta hainbeste kobrau zeori ta... hori ibiltten zan.
- Halako argi gutxi eukitta eta kontadoria eta dana zeukatsuein?
- Kontadoria eta danak, honbre! Hori debalde sekula ez da hemen ezer egon e?

14. Aramaioko "Tuberoa"

- **Erref:** ARE-036/017
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:37:45. **Bukatu:** 00:41:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

<p>Etxean ura beti ezagutu du. Hodiak itxi egiten ziren eta Aramaioko "Tuberoa" ekarri zuten arazoa konpontzera. Urak berak uzten zuen "troskie" kixten zituen hodiak.</p>

Transkripzioa

- Eta etxe barruen ura?
- Bai, etxe barruen ura, bueno, akordaten naiz etxe barruan gurien betik egonda ura, han goittik ifiñitta, onddiok deposittua han dau.
- A, teillatuko urakin...
- Ez, itturri batetik goittik. Geure esparruan urtenda, urteten dau itturri batek eta hango ura euen etxien. Baiña euen troskie, han bidien pasaten zan holako zerien baten ta akordatan naz goiko deposittotik behera zera euen, tubo hola estu samarrakin ifinitta eta troskiakin zarrau, gu mutikuak gintzala.
- Metala?
- Metala ez, bestie, troskie da beste...
- Zikiña?
- Holako, oin be Ugastegin han troskie esaten jakona badago, holakotxe maillak egoten dira zertuta, egindda, zerien. Izaten da hori gauze zer bat, harrixe be ez, baiña harrixen moduen gogor samarra, ta hori troskie da, bueno, hori, rarue ez jakittia zuek, troskie. Tubuak zerrau itten zittuen, enkanbio plomun ez zan pegetan, baiña beste tubuetan be pegau. Zementozko tubuak ziren honeik, eta...
- Uralitazko lehengo tubo zaharrak, ezta?
- Porlanezko tubuak ziren hareik zerak, ta hareik zulua be holakua eukein ta hari zulua zerrau in jakon, eta gero gu mutikuak gintzala Aramaixoko "tuberua" edo esaten otsen, Aramaixotik etorritta, holako zabalerako tubuak sartu zittuen zerien, eta hareikin ya bastante, haundixak ziren eta zerretako hareik, dana zerretako urte asko biher. Baiña gero ha troskie

bidien euen harri zerien, goittik behera errekatxo moduen etorten euen hori. Berak urteten euen lekuen ez euken, ta gero goittik hartu euen ta gero troskiori eliminatu zan.

- Hori zer da, urak berak erueten dauen zerbait?

- Bai, urak berak eukitten dau, Ugastegin be badau hori, Ugastegin han Ugastegittik [...] aldera gatzela, troskie esaten jako hari, troska, eta han gure errekan bertan jausten dan lekuan zerien, bertako harrixen, haitxen gaiñien, holakotxe maillie egindda dauko urek.

- Guk metalakin Arantzazun...

- Metala, metal ure, baiña metal ure, ha bigunagua eta zeragua da baiña bestie gogor-gogor egitten da, ha [...] masie letxe pegetan da hori, troskiori.

- Nik Lurgorritan aldatuta dakot tubuak ziharo zarrauta metalakin, e? Gorri-gorri.

- Bai, hori gorrixa da, baiña bestia ez da gorrixa, bestia zela esango dotsut nik, honen kolore antzekue edo, honako ze bat, honetxen kolore antzekue. Bai, hori da, eta holakotxe maillak egitten dira goittik behera. Ugastegira faten bazara Juaneri esaiozu troskie nun dauen, fan eta harek erakutsiko dotsu, Juaneri, Juane Urkiari.

- (...)

15. Tangadun komuna 1926. urtean

- **Erref:** ARE-036/018
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:41:00. **Bukatu:** 00:44:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

1926. urtean lan handiak egin zituzten etxean. Zisternadun komuna eta arropa garbitzeko harraska orduan jarri zituzten. Don Genaro Unda abadearen pasadizo batzuk kontatzen ditu Pedrok.

Transkripzioa

- Orduan etxian ura betidanik ezagutu izan dozu, etxe barruan.

- Bai.

- Eta komuna-eta...?

- Komuna eta danak.

- Komuna bonbaduna-edo?

- Bai, bonbiaz, bonbiaz, bonbiaz euen orduko, baiña hareik obrak egindda egozen "el año veintiséis". Han euen albergia hau zerau dana holakotxia, eta aldamenian harrixak, harri bi hola, ta erropak garbiketako eta zerien. Beste horma bat, hau mahaixau baiño luziagua zerien, han ifinita zeori, ha hormia noiz egindda euen han euen ifinita, Simon Etxabe, "mil novecientos veintiséis"-edo egindda euen ha.

- Simon Etxabe zer zan, zure...?

- Ha zan ba hemengo...

- Igeltseron bat?

- Apotzagan bizi zan, izatez bera jaixotez Begoñakua zan.

- Hargiña edo?

- Bai, hargiña, igeltsero, danera, orduen...

- Simon Etxabe?
- Bai, arotza be Apotzagakua ibil zan.
- Eta zuk orduen umetatik ezagutu dozu kumuna bonbiakin?
- Bai. Eta lehen esan dotsuten Unda abadia [...] beziñuak ardixak beuken hareik ordurako eta harrapaten ebena jan itten eben dana, eta gazuria harrapo eta kriston gazure janen bat egin eta kumunera gurera etorritta be bai.
- Gazuria be jan itten eben? Onak bakarrik ez zittun jaten orduen.
- Bai, bai. Arrautzak eta harrapaitten zittuanak. Zeozer preparauta beuen afaitteko [...] zan, eta linpio. Eta gazterik hil zan e? Hemendik Ubidera fan zan zera, eta berrogeta zortzi urteaz hil zan han, baiña atzera hara fan ta gero etorri eta gurien bazkaldu eta egonda euen. Gero Olaetako batek esan oskun, gizon bat gu baiño zaharragua, esan oskun ba zela hil zan ta obispua fateko zala eta jana ikaragarri jaten ebena zan, aurreko gabien, hurringo egunien eguardi artien barurik egon biher mezia emuteko, orduen pekatu mortala zan zera, eta obispua etorteko eta baba janen bat in eien gabien eta gero hurringo egunien hildda, zera, hildda akordau zan hurringo goizien, hurringo egunien. Hildda akordau bai! Hildda akordau ez zan ingo, baiña hurringo egunien hildda. Berrogeta zprtzi urteaz e? Bai.
- Baiña horixe, abusauta, ezta?
- Bai, abusau, haundixak itten zittuana, bueno! Ugastegira fan ta Ugastegiko etxeko zerok danok, goittik behera, [...] zeozer harrapetan baen dana jana jan ta dana, holakotxe zera, tragoi bat zan. Bai, Udalan egonda fan zan Udalatik, eta onddiok denpora asko ez dala esan oskun Udalako nagusi batek, gu baiño zaharraua, Don Jenaro ta komestaziñua Udalan egon zala eta, "Don Jenaro? Hemen asto Jenaro" esaten otsiela.
- Asto Jenaro?
- Bai, holako zerak.
- Hau, Unda hau?
- Bai, baiña holako zera zan, bai.

16. Estraperlo kontuak

- **Erref:** ARE-036/019
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:44:10. **Bukatu:** 00:47:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Martzel "Marroko" Aozaratza auzoan izandako Marroko baserrian jaio zen. Goroetan eta Araotzen bizi izan zen eta Arabako Ozaetara ezkondu zen azkenean. Estraperlo garaiko pasadizo batzuk kontatzen ditu Pedrok, "Mordo Motz" eta beste pertsonaia batzuenak.</p>

Transkripzioa

- Gero beste zer bat be egon zan orduen gerraostien, kontrabanduan pasaten nitzen Arabara.
- Estraperlua.
- Estraperlua eta etxerako falta zanak eta zerak ekartera, ardaua be bai, ekartera akordaten naiz ni, zeretik, Larreatik-eta, hemen Ozaeta-eta, gero kostunbre bat egon zan egunduko zera, atzera-aurreria astuakin, hor paatxa hazixa be zetik, zeatik Ozaetatik ekarritta nau neu be, bai, eta

onddiok goguan daukat, holako diabru samar bat zan, Ezkurra Joxe, eta Ozaetara banoie goitik behera, ta agostua zan, ta esan osten horrek Mantxuen Teodoron andrien aitta, Mantxuen Teodoron andrien aitta, Martzel Marroko esaten otsen baiña Oñatiko sekretarixuak etxia egindako lekuen han bizittakua izandakua edo zan, hori neri esan nostenerako ya gizon nagusixa zan, ez dakit orduen zenbat urte euko zittuen, ta Ozaetara ezkondata euen, eta esan osten “de dónde es el vasco”, eta nik idixak erosten eta asko etorten ziren Arabarrak orduen zera, hona, ta “ni Koruetakua”, nik ezaguketan neben bera, eta “Koruetakua nungua haiz ba?”, “Mendikurtzakua”. “Joxe Uzarko bizi dok?” Eta “bai”, oin ez jakixat...

- Joxe zein?

- Joxe Uzarkue, Koruetakua, zerekua, baserrikua, eta “bizi dok?” Eta “bai, oin ez jakiat zelakua dan baiña lehenau kaskajua galanta zuan ba!” Eta hori tiori esan notsan, gure zeari, Ziondoko Koruetako zeorri eta bai, bizimodua inposiblia itten otsan harek zera mutikotan zeorri, betik jugadak itten, betik zerak itten, eta Mordomotz izena ifiñitta eki ien zeori, Martzelori, Joxek, eta Martzelen ama bizkaitara izan bera. “Mordomotz? Heuk euko dok hik morduori luzia!” Zeorrek Martzelen ama horrek Joxiorri. Holako txistiak eta [...]

- Heuk euko dok hik morduaria?

- Morduori luzia, Mordomotz esaten otsen zeari eta; “heuk euko dok hik morduori luzia!” Haren zera, horren esaten doten horren zera, Martzel Marroko horren aitta, Joxe Miel ieuken izena, eta ordun Oñatin ospittala euen orduko denporetan be, eta han hil ei zan, eta hori guri tiok esandakua piñu sartzen eta gabitzela. Hil ei zan han eta Koruetan han Errekabitarera edo beste etxe batera, han Julian, ha ezagutu neben neuk be, ha zahartuta euen orduen mutikuak gintzenerako be. Baiña hara fan eta esan ei otzen: “Julian, badakitzu zer pasau dan gurien? Joxe Miel hil jakula Oñatiko ospittalien”. Eta Oñatiko ospittalien hil zan zeori, horren Martzel horren aitta. Orduko, ez dakitzu, istorixak.

- Martzelo horren aitta, eta Martzelo hori zan Teodoron andrien aitta?

- Martzelo da Teodoron andrien aitta, zan, bai, Martzel Marroko esaten otsen. Marroko Azatzan jaixota euen ha, jaixota euen Azatzan, baiña guk ha etxia ez geben ezagutu, Azatzako Zelaiko etxien aurrekaldien, han Marroko bidekurtzia esaten otsen, eta han etxeren bat egonda euen baiña gure denporan ez.

- Handik Arabara fanda?

- Handik Koruetan, eta gero Araotzen be bizi izan ziren, Agerre azpiko han Saratxo han be. Ta gero hemen ikazgiñen eta ebillela, hori neskiori aurrera, han be astuakin eta bihorrak in eta ikatzak ataraten han, Degurixatik gora be. Eta han nobixiori edo tratua-edo in eta Ozaetara ezkondu zan hori Martzelori. Teodoron andrien...

- Teodoron andria ez da euskalduna.

- Arabarra, Ozaetakua.

- Esan dozunien Araotzen bizi ziralara...

- Bizi bai, bizi izan zan baiña amakin Martzel, soltero euela. Gero ezkondu zan Ozaetara, eta Ozaetan jaixotakua da hori, zeori...

- Teodoron andria.

- Bai.

17. Elgeako azken euskaduna

- **Erref:** ARE-036/020
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:47:37. **Bukatu:** 00:50:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Gerraostean, Ozaeta eta inguruetara joaten zen guretik jendea erdara ikastera. Elgeako azken euskal hiztuna, Sasiain baserriko aitajauna, Pedrok ezagutu zuen.</p>

Transkripzioa

- Orduen Ozaetan, Ozaetan hemendik jentia dana horra erderaz ikastera faten zan gerraostien, gure gazte denporan be, e? Nik hor euskeraz itten ebena azkenengo, "el último suspiro del euskera", Elgean, Zaziain, hango aguriak itten eben bakarrik euskeraz. Ni mutikua nintzanien gu horra faten gitzanien. Haretzek bakarrik e? Arabarra.
- Arabarra eta euskalduna.
- Bai, euskalduna, baiña politto beste bat edo bik be bai, apur bat bai, baiña harek formal.
- Zaziain esan dozu?
- Bai, Zaziain baserrixa zan, Zaziain esaten otsen, baiña oin ez da bizi iñor, ha etxia hango alabia-eta Ozaetan-edo bizi dira.
- Hori Zaziain hori zan Ozaetako baserri bat?
- Ozaetakua ez, Elgeakua zan hori, baiña gero hango famelixia alabok edo zerok oin Ozaetan bizi dira. Hori Elgeakua, Elgean gorengua, mendi alderakua, Araba aldera, Elgeako goixen goixenien euen etxia.
- Zuk esan dozu zuk ezagutu zebela horko azkenengo euskaduna. Hori zenbat urte zeukatsula zeuk?
- Ba nik hamahiru-hamalau-hamabost urte, holako bat. Bestien be euskalduna egonda euen, Altube be, egurretan hemen ibiltten dana Elgeakua. Haren aittajuna zerekua zan, Ugastegiko Goikoetxekua, bai, eta hango zerak be euskeraz itten eben, nik entzunda neuken horri zeorri, Ugastegiko Goikoetxekua Koruetan bizi zana Emeterio. Harek txarrixari jana, gazuria edo zerbait berua bota eta kurrixka baten txarrixok eta, berua jak, erreza! Poloni edo zan andriorren izena, eta tia Polonik zela esan utsan txarrixari, "berua jak, erreza!" Esan utsela.
- Txarrixari? Zaziain baserri horretako zuk esan dozu, aittajuna ya?
- Aittajuna bai, hemen Peñakulokua euen kriaui bertan, hemen Mendiolakua, ha be euskalduna eta haren etxian euskeraz itten zan.

18. Arabatik estraperloa

- **Erref:** ARE-036/021
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:50:30. **Bukatu:** 00:52:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gari gutxi ereiten zen inguruan, eta bai garia eta bai patata estraperloan ekartzen zuten Arabatik. Pedro bera ere joaten zen astoarekin Arabara. Hirusta hazia ere ekartzen zuten. Gariak ematen zituen lanak eta aurrerapen berriek lanok nola erraztu zituzten azaltzen du.

Transkripzioa

- Eta estraperlu garai hortan zu zeu ibillitakua zara astuakin-ta?
- Bai, astuakin faten nitzan ni aittakin be bai eta zerien be bai, eta gero...
- Ze ekarten zeuen gehixen?
- Batzuetan garixa eta hurrengo beste zerbait, eta patatia be ekarritta gaz.
- Patatia zer, hazittarako edo jateko?
- Jateko be bai, akordatan naz zeretik...
- Eta hori zeatik zan, zeuen... ez zeukein nehikua zeuen...?
- Gero ereitten eta hasi zan jentia gehixau, eta gero ez zan ekarten, gero kanbixau in zan bizimodua konpletamente.
- A, orduan ez zan hazten patatarik?
- Artien... orduen denporan guk ekarten ibiltten gintzan denporan bai, zeozer bai baiña...
- Gutxi.
- Gero bai, gero patatia eta danak.
- Garixa eta patatia eta beste zer gehixao?
- Esaten dotsut, paatxa hazixa be handik ekarritta gazela, ba holakotxe gauza zer batzuk, patatia...
- Eta olixo eta holako gauzarik ez? Ez zeuen ekarten handik?
- Olixorik ez.
- Hori izango zan razionamento garaixan, ezta?
- Bai, olixorik ez.
- Jatekua.
- Jatekua besteri ez.
- Zeuek Mendikurtzen, (...), Mendikurtzan garixa esan dozu eukitten zeuela.
- Gero bai, gari asko hartzen zan.
- A, baiña gero.
- Garixa, bueno! Aurretik garirik ez dakit bape hartuko zan be, itxitta igual egongo zan, ogixa [...] eta gero artua moduko holako zer batzuk, bal-baltzak egitten ziren, gosiak jentia. Gero garixa ereitten zan ta gero garixa erain eta igeitexakin ebagi, gero lotu zerok, azpelok, gero metak egin, gero garijoten atzera matxaka zahar bateaz, gero garbiketan be lana txarra eukitten eben garixak, gero ekarri zan zera, Bittorixan Ajurianien egindda, lastua kamarara eta garixori garbittuta, eta makiñori ekarri zan, ha zan adelantua!

19. Belarra ebakitzeko makina

- **Erref:** ARE-036/022
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:52:29. **Bukatu:** 00:55:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Belarra ebakitzeko garaia oso neketsua izaten zen. Idiekin tiratutako belarra ebakitzeko lehenengo makina Mendikurutza baserriak ekarri zuen 1944 inguruan. Garia jotzeko makina (trilladora) ere aurrerapen handia izan zen. Belarra ebakitzeko makina beste baserri batzuek ere ekarri zuten gerora.

Transkripzioa

- Eta aurretik segan, jo ta bedar zaillak kristonak, hainbeste ganau eta kristo, ta jota errebentauta jentia betik e? Ibiltten zan e? Zenbat astolan? Harik eta makiña agertu zani en eta makiña geurian egon zan leheningo, bedarra ebateko makiña, eta idixakin ibiltten zan. Bape be makiñiaz ibiltteko lekuen deskantsu ederra hartu euen jentiak. Gero hari makiñiari...
- Idixakin tiratutako bedarra ebateko makiña?
- Ha idixakin tiratuta bedarra ebateko makiña, bai. Eta hari gero ifini etsien zer bat, ha gizona majua zan Ajurianetik etorten zana, beste holako tablazko zer bat, eta gaiñian asientua ifini erruedien gaiñian eta idixakin hartu makiñiori eta eskuaria da, hola in, eta martxan doiala ebagi eta zerak lurrian illaran itxi eta faten zan zeori, garixori ebagitta, atzetik kentzen samur baiña aguro be bai, eta bestia igeitexakin aldian aguro, eta azpelak izten zittuen oso kurioso eta harekin kriston fazilidadia izan zan, eta gero trilladoriori ekarri euenien el sumun. Juntau kuadrillia eta bost edo sei lagunen artien, makiniori edo trilladoriori ekarri euen eta lastua kamarara tubotik ta garixa garbi-garbi egindda zakura, eta handik troxkara. Garixa asko hartzen zan, urte batzutan hala be, bueno!
- Goguen dakotzu gutxi gorabehera ze urte izango zan, edo zeuk zenbat urte izango zittuen hori, leheningo bedar ebateko makiña hori ekarri zeuenien?
- Ba, hortxe, "cuarenta y...", orduen kriaue euen hemen Felipe Txantxiku, Oñatittik etorrittako batzuk ziren, gurien urtietan egon zan, ointxe onddiok urte gutxi dala hil zan, larogeta beratzi-hamar urteaz-edo. Gu ibiltten gintzan ni mutikua eta hareik bedar ebaten, orduentxe ekarri euen makiñiori, izango zan "cuarenta y tres-cuatro" holako baten.
- Gero makiña hori beste baserri batzutan be egon zan?
- Gero beste batzuek be ekarri zittuen makiñak, zerak, bedar ebateko makiñok beste etxe batzutan be...
- Baiña idixakin tiratutakuak.
- Idixakun tiratutakuak, bai.
- Eta horreik aldatz goran eta aldatz beheran ondo ibiltten ziren makiña horreik?
- Aldatz beheran tiraketako aldatzien, aldatz haundixak egozen lekuen segiaz ebagi biher, baiña terreno patxadazkuak egozen, hori pantanua in dauen lekuan-ta. Horreik danok zeraz...
- Sekula entzun barik neuken. Hori Oñatin ez dakit ezagutu dan.
- Ba hemen bai, gurien egon zan ta beste leku batzutan be politto-politto hasi ziren.

20. Belarra kablez etxeetara eramatean gertatutako istripua

- **Erref:** ARE-036/023
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:55:15. **Bukatu:** 00:58:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Idiak euren pausoan joanda, makinak belarra ebakitzen zuen. Hala ere, belardi maldatsuetan segaz ebakitzen jarraitu zuten. Toki maldatsuetan belar iharra

kablez bidaltzen zen etxeetara. Belar-sendorra kablean gelditzen zenean, harriz betetako zorroa bidaltzen zioten bultza egin ziezaion. Horietako zorro bultzalari batek Goroetako Uriarte baserriko belartegian lanean ziharduen gizona hil zuen istripuz.

Transkripzioa

- Zenbateko kortia hartzen eben? Segiak baiño zabalaua?
- Holako peini bat euken, holako zabalerako peine bat.
- Segiak igual gehitxuau korte baikotzien?
- Zabalau bai baiña, segiak ebagi orduko ha baztarrien egoten zan e? Idixak euren pausuan faten ziren eta, aide. Ha adelantu haundixa zan e? Ha zera, ordurako. Diferentzia ederra, gero segiaz ebaten ziren horreik beste terreno aldrebesauak, han daz zeretik, pantanotik Ursula Garai aldera, hareik be han be zail haundixak egozen, eta hareik segiaz ebaten ziren artien.
- Hara igual idirik eruen ezin, ezta?
- Idixak burdixa kargauta-eta faten ziren, baiña norberak bizkarrakin utsitta eta burdixa kargauta [...] atara bihar. Aldapak, bai.
- Arantzazun...
- Arantzazun, eta Urrusulan? Urrusulan hemendik Urrusula Garaitik ifini, oin dana piñua dau baiña dana zelaixa zana, danak kabliak ifintten zittuen etxera sendorrek botateko.
- Neuk be ezagututa dakot hori.
- Nik Koruetan ezagututa dauket han goittik, Kurtzebarri aldetik Koruetako Uxartekuk, etxia be han dau baserrixa ona, etxia ona. [...] edo zerak, goittik kablia ifinita eta etxeraiño aillau baiño lehenau geratu sendorra, askotan haiziek eutsi itten otsen, kabliak hola egin, atzetik harrixa bota zakun baten sartuta, ta Urtitxeko Anizeto, han bertakue, hemen aiuntamientuan dabil hango zer bat, horren aitten tio bat zana, hemen lana itten dauen horren aitten tio bat. Bedarrok kentzen beziñuanera fanda ta jo harrixori goittik behera kargauta bota daue zakun baten harrixori, jo eta sendor eta harri eta kristo guztia eta jota garbi gizonori bertan kamaran.
- Gizona garbittu?
- Eta ni etxeburuen nebillen ganau zain, eta amak esan nosten kanpaia entzuten dittunien, hamabixetako kanpaia josten euen ordun eguardixen, eta illunkaran be bai aramaittekua, eta...
- Anjelusa edo ez zan hori?
- Anjelusa edo ez dakit, eta entzuten dotenien erueteko ganauak etxera. Eta nik kanpaia entzun nebenien hil-kanpaia, mutikua, artien gaztia nintzan ta, kanpaia ta onddiok zer eta, gero zera, kanpaia, hil-kanpaia Uxarten jo zoorrek zeori. Harrixak sendorra tratatik kentzeko harrixak bota atzetik, eta harrixak pixua zela euken harek, haiziak ez otsan hari eusten eta goittik behera abixara haundixa hartuta eta jo eta sendor eta guzti barrura, hemendik atetik barrura sartuko balitza letxe eta barruen euen zeori, gizonori, mutilzahar hori jota garbi bertan. Bai gizona.

21. Estraperloa zaintzeko, mikeleteak

- **Erref:** ARE-036/024
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:58:18. **Bukatu:** 01:00:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Pedroren aurretik ere egiten zen Arabatik estraperloa. Mikeleteen lanak zeintzuk ziren kontatzen du Pedrok. Pedroren garaian Guardia Zibilak ez zuen asko estutzen estraperloaren aurka. Ozaeta aldean, miñoiak behin ere ez zituen ikusi Pedrok. Santa Agedan eta Gatzagan ere baziren Mikelete-etxeak.

Transkripzioa

- Bueltau gaittezen estraperlo kontutara. Hor miñoiak edo guarda zibillakin edo problemarik...?
- Guarda zibillak zerien baiña ez euen hainbeste ataketan e? Leheneau, aurretik egon zan kontrabanduen ardaa ta zerak eta ekarten zittuen eta hor Araba Mendixen be han daz Mikelete etxiak eta zerak, danak han goixen, mendi gaiñien bertantxe be bai, han etxiendako lekua, Usakoetxenetik bertan harutzatxuauan. Nik entzunda dauket Madiñako, nire andrien aittajaunari, etxera etorri eta ganuari ittuan askapeietan eta begira mikeletiak; eta ordun mikeletiak kriston zerak eukitten zittun hor mendixen kriston, esaten daue ordun, guk ez gittun horreik ezagutu ya.
- Aduaneruak edo modura.
- Bai baiña Araotzera eta pentsaizu Arabatik zerien, kontrabanduan zerak, eta han hareik etxiak han goixen indde han egoteko, ze gauza raruak e?
- Han negua gogorra e?
- Bueno! Mikelete etxia. Hareik haundixak egindakuak astokerixak hor.
- Zeuek ez zindduein sekula harrapau?
- Ez. Baiña orduen guarda zibillak hemen egon zala bestia, baiña ez euen hainbeste ataketan. Arabarrak be zeozer biherko euen ta, baiña hemen ez euen. Hemen gero...
- Ta Araban bertan miñoiak-eta?
- Araban ez, hor Larreatik, Ozaetatik hasi eta guk miñoiak sekula ikusi geuenik be ez naz akordetan.
- Klaro, zeatik batzuk arpegi danakin itten euen kamiñotik estraperlua, eta kamiñuan...
- Bai, hemen egoten ziren Gatzagan-ta be, hor Gatzaga gaiñian Marisan aurrekaldien be bai, eta han harutzatxuauen Arabako zerien be bai, han be bi mikelete etxe hor daz; Santa Agedan be bai, hor kontrola.
- Santa Agedan, Aramaixorako zera?
- Bai, hor be kontrola hor be mikelete etxia; oin etxiori salduta-edo, hor maketo bat hemen...
- Santa Agedan be egon ziren mikelete etxiak e?
- Bai, Santa Agedan be bai. Hemen dana kontrolauta egon zan orduko denporetan be.

22. Bederatzi baserri urpean

- **Erref:** ARE-036/025
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 01:00:34. **Bukatu:** 01:02:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Hiru errota zeuden Goroeta auzoan. Errotazarra Urkuluko urak ezkutatu zuen. Urkuluko urtegiak urperatu zituen bederatzia baserriak izendatzen ditu.</p>

Transkripzioa

- Neri Udalako baserritar batek esaten nostan eurak itten eueilla, errotak itxitta egon ziranian, itten eueila astua kargau, zorruok ifiñi astuan, hiru-lau baserritar alkartu eta faten zirela gabaz Aramaixoko ez dakit zein errotara...
- A bai. Hori Koruetan be askotan egoten zan, Koruetan Urkulun jotzen zan ordun, hori pantanuori dauen lekuen azkenengo etxia behien. Errotia famosua euen. Sasue baten Koruetan hiru errota egonda egozen; hori zan Urkulu, bestia Errotazar ta bestie urbaltza urtetzen dauen lekuen, Goiko Errota. Baiña Errotazar han euen ondiok, Mendikurtzakua zan ha etxia be ta hango zerak, oingo etxia egindda dauen lekuen onduen, han dau orduko errota harrizarrak, holakotxe harrizarrak. Baiña gero...
- Errota etxia bera, jausitta ya?
- Jausittak ez, urak hartu auen azpizen.
- Urak tapauta.
- Hor etxe pillue desapareziu zan e? Hasi han, Mendikurtzakua guria be bai, eta hasi Errotazar hori esan doten hori, Mendikurtzakua bi, Dixatz hiru, Ziondo bixak bost, Uzar bixak zazpi, Barrutikua zortzi, eta hor Barrenkuan beratzi baserri ezkutau ziran.
- Urpeian.
- Bai, bota edo kendu, bai.

23. Ur azpian desagertutakoak

- **Erref:** ARE-037/002
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:00:35. **Bukatu:** 00:03:00

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Koruetako baserrien izenak. Asatzako baserriak. 16 etxe desagertu ziren guztira ur azpian. Mendikurtza etxeari 11 hektarea kendu zizkioten.

24. Erromeriak eta jaiak

- **Erref:** ARE-037/004
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:05:02. **Bukatu:** 00:08:13

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

<p>Erromeriak. Araotzera joaten ziren Trinitate jaietan. San Elias egunean ere bai. Santiago egunean ziren auzoko jaiak. Inguruko auzoetako jaiak. Ojala zelaian ekaitzak nola harrapatu zituen, erromeria egun batean. Aguazila joan zitzaien. Oinaztuak nola hil zuen neska bat.</p>

25. Ojala zelaiko jaia

- **Erref:** ARE-037/006
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:08:46. **Bukatu:** 00:09:31

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Ojala zelaira araoztarrak joaten ziren jaietan. Arratsalde izaten zen, Santo Domingo egunean.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-09

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com